



**E.A.E.ko UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAN
ESKOLA-JAZARPEN EGOERETAN JARDUTEKO
PROTOKOLOA**

ORIENTABIDEAK
0, I, II y III ERANSKINAK
OSATZEKO

- 0. ERANSKINA: esku-hartze eskariari buruzko akta
- I ERANSKINA: ikastetxeko bileraren akta
- II ERANSKINA: A txostena
- III ERANSKINA: B txostena



Bi hitz baino ez sarrera gisa...

Ikastetxean sarri askotan eskola-jazarpen egoeretan jarduteko Protokoloa abian jarri beharrean aurkitzen gara.

Horrelakoetan, egunero esku artean ditugun gai eta erronkei aurre egiteaz gain, gure arreta jarri behar izaten dugu Protokoloak berarekin dakartzan zereginetan: familiekin bilerak, irakasle-taldeekin batzarrak, berariazko zaintza eta behaketak abian jarri, jokabide-erregistroak, eranskinak bete, etab.

Hori horrela, orientabide hauen helburua da ikastetxeei aukerak eta ideiak eskaintzea, eta baita eranskinak betetzeko jarraibideak ere.

Horretarako, eranskin bakoitzaren eremuan, urdinez adierazita, zenbait ohar eta iradokizun aurkituko duzu zure egitekoa ahalik eta zehatz eta egokien egiteko aukera izan dezazun.





0. ERANSKINA

ESKU-HARTZE ESKARIARI BURUZKO AKTA

OHAR OROKORRAK

Funtsezko unea

Entzute aktiboaren unea da, non konfiantza eraikitzen hasten garen. Behar bezala kudeatzen ez bada, defizit horren ondorioak arrastaka eraman daitezke prozesu osoan zehar.

Esku hartzeko eskaria jasotzeko jarrera

Gogoan izan familiarekin edo esku hartzeko eskaria aurkezten duen pertsonarekin egingo dugun lehen bilera honetan izango dugun jarrera muturreraino zaindu behar dugula, jazarpenari buruz gerora egingo dugun balioespena gorabehera. Entzute aktiboa, begirada arretatsua, konplizitatea eta enpatia afektiboa, kognitiboa eta motorra gure solaskideek euren ondoan baldintzarik gabe gaudela ulertzeko baliabideak dira.

Kontuan hartu behar da bilerari denbora eman behar zaiola borborka sor dadin. Halaber, oso garrantzitsua da bilera etenik gabe igarotzea elkarriketaren erreserba eta intimitatea bermatuko duen leku batean.

Kasu guztietan, 0 eranskinaren kopia emango zaio familia eskatzaileari. Eranskinean jasotako informazioa eta bileran landutako gaiak ikastetxetik kanpo ez zabaltzeko beharra adieraziko zaie beti.

Zer egin esku hartzeko eskaera gauzatu ondoren?

Esku hartzeko eskaria egiten den unetik 1. eranskina eragin duen bilerara gehienez 5 eskola-egun igaroko dira.

Hasieran, bi jarduera zehatz antolatuko dira: ustez jazarpena jasaten duten ikasleen segurtasuna bermatzea eta hasierako informazioa jasotzea. Helburu horiek lortzeko, BAT taldeak, ikastetxeko zuzendaritzarekin batera, antolaketa-egitura espezifiko egokia prestatuko du (zer irakaslek edo hezkuntza-eragilek egingo duten zer, noiz, zer espaziotan, zer behaketa-tresnarekin, eta abar).

Garrantzitsua da ulertzea gai horrek ez diola ikaslearen tutoreari soilik eragiten. Ikastetxeak berak hartzen du, modu mankomunatuan, esku hartzeko erabakia, behar diren informazioak biltzeko, ustez jazarpena jasaten ari diren ikasleak babesteko eta haren familiarekiko komunikazioa mantentzeko.

Zeregin horiek antolatzeko, BAT taldearen aburuz, beharrezkoa izan daiteke irakasleen eta inplikaturako ikastetxeko beste langile batzuen bilera antolatzea.

Familiarekin komunikatzea, esku hartzeko eskaria aurkeztetik abiatuta

Esku hartzeko eskaria familiak aurkeztu badu, komunikazio eta koordinazio etengabea izan beharko dugu familiarekin, egoera behar bezala kudeatzen eta ikaslearen segurtasuna zaintzen laguntzeko.

Esku hartzeko eskaera barneko hezkuntza-eragile batek egiten badu (irakasleak, ikasleak, etab.), 0 eranskinaren bidez irekiko da protokoloa. 1. eranskinean jazarpen-zantzuak ikusten direnean edo horiei buruzko zalantzak daudenean, familiari deituko zaio, eta beste 0 eranskin bat osatuko da (familia). Une horretatik aurrera, etengabeko komunikazioa izango da familiarekin. Epeei dagokienez, protokoloa irekita dagoela ulertuko da lehenengo 0 eranskinetik aurrera.

Protokoloaren alderdi formalak eta berorren helburuekin bateragarri egitea

Protokoloa ez da eredu zurrun bihurtu behar. Atal formalak (eranskinak, epeak, unek, etab.) ez zaizkio gailendu behar funtsari. Bi aldeak bateragarriak izan ahal eta behar dira.



Protokoloaren alderdi formalak protokoloaren estandarizazioa bermatzen du, hau da, esku hartzen duten eragile guztiek izan behar duten ulermen komuna. Protokoloaren funtsaren xedea, berriz, eskaera jakin bati eman beharreko hezkuntza-erantzuna egokitzea da, zeina bakarra izango baita egoera jakin horretarako, gertakari zehatzetara egokituta.

Ikastetxetik kanpo izandako jokabideak.

Ikasleek ez dute konpartimentu estankorik egiten ikastetxe barruko eta kanpoko gertakarien artean. Bizi dituzten gertakari guztiak etenik gabeko hari baten parte dira. Horregatik, ustezko jazarpen-jokabideak ikastetxetik kanpo gertatu arren, ohikoa da jokabide horiek eskola-jarduerarekin kausa-ondorio lotura izatea, 201/2008 Dekretuaren 33. artikuluan deskribatutakoaren arabera.

Harreman hori egiaztatu ondoren, edo artikulua honetan adierazitako beste egoeraren batean oinarrituta, ikastetxeko zuzendaritzak, Hezkuntza Ikuskaritzarekin harremanetan jarrita, jazarpen-protokoloa irekitzeari buruzko erabakia hartuko du.

Ustez jazarpena jasaten duen ikasle bakoitzarentzako protokoloa

Protokolo bat irekiko da kasu bakoitzerako.

Dokumentazioa bidaltzea

0 eranskinaren kopia bidaliko zaie zonako Berritzeguneko zuzendaritzari eta erreferentziazko ikuskatzaileari.

Eskariaren jatorria (X batekin adierazi)

Familia	
Besteak	

Adierazi eskariaren jatorria
(*Begiralea, irakaslea, peditra, etab.*)

1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2.- USTEZKO BIKTIMAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Izen-abizenen inizialak	
Identifikazio-kodea	
Sexua	
Adina	
Maila/Taldea	

3.- AZALDUTAKO GERTAKARIAK

(*Ahalik eta zehaztasun handienaz transkribatuko dira eskaria egiten duen pertsonak adierazitako gertakariak. Ustez inplikaturik dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.*)



Esku-hartzeko eskaria egiten duenaren aurrean izan beharreko jarrerak garrantzitsuak dira, sarreran esan dugun bezala.

Ahalik eta zehatzen jasoko dugu eskatzaileak adierazten duena. Zehaztasunak axola du, eta ez hainbeste hedadurak.

Gertaera zehatzak jaso behar dira: datak, parte-hartzaileak eta lekukoak, inplikazio-maila, portaeren izaera eta maiztasuna, zer lekutan gertatu diren, etab. Ahal den neurrian, honelako deskribapen generikoak edo lausoak saihesten saiatzea: *"Ikaskide batzuek askotan molestatzen dute nire semea..., ikusten duten guztietan ez dute bakean uzten..., ahal duten neurrian"*.

Esku hartzeko eskaria aurkezten duenari entzun ondoren, kasuari buruzko informazioa eta xehetasunak ematen dituzten gai osagarriak argitu behar direla uste badugu, galdetu egingo diogu. Erantzunak erregistratuko dira.

Familiaren idazkia erants daiteke, baldin eta eskura badago. Idazkiaren edukia 0 eranskinean jasotzen bada, bertan agertzen diren izenen ordezkariak jarriko dira.

Zuzendaritzak ikaslea babesteko hartuko diren premiazko neurrien berri emango dio esku hartzeko eskaria aurkezten duenari. Familia bada eskaria aurkeztu duena, lankidetzan estuan jarduteko eskatuko zaio, izan ere erantzukizuna partekatzea baita inplikaturako adingabeari laguntzeko modurik egokiena.

Jazarpena egon badagoela pentsatuta jardungo dugu. Edonola ere, protokoloa aplikatuta, jazarpena badagoela ala ez egiaztatu ahal izango da arrazoiak emanez.

EZ AHAZTU: 0 eranskinean eta gainerako eranskin eta txostenetan, ikasleen inizialak edo identifikazio-kodeak soilik erregistratu behar dira.

4.- USTEZKO BIKTIMAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO ZUZENDARITZAK HARTUKO DITUEN NEURRIAK

Helburua: ustez jazartzen ari diren ikaslearen segurtasuna bermatzeko neurriak zehaztea. Garrantzitsua da jakinaraztea bai ikaslea bai bere familia ez daudela bakarrik, ikastetxearen laguntza eta babesia izango dutela.

Helburua lortzeko egokienak aukeratzea:

1.- Ikasleak erreferentziako pertsona heldu bat aukeratzea, eta harekin komunikatuko da ikaslea. Ikaslearen gertuko pertsona izango da, ikasleak berak aukeratua.

Komunikazio-bide seguruen bitartez, ikasleek eta erreferenteak egunero izango dute komunikazioa, baita egunean behin baino gehiagotan ere, beharrezkoa izanez gero. Komunikazio-bideak formalak izan daitezke (mikrobilerak lanaldiaren hasieran, amaieran edo ikasleek hala eskatzen dutenean, idatzi laburrak, etab.), edo informalak (keinuak, ...). Enpatiaren bidez, ustez jazarpena jasaten duen ikasleari bere ondoan gaudela ikusarazi behar zaio, ez dugula bakarrik uzten.

2.- Aurkeztutako eskariari buruzko informazioa ematea irakasle-taldeari eta tartean diren jantokiko langileei (edo bestelakoei), erne egon daitezen eta, edozein gorabeheraren aurrean, koordinatuta jardun dezaten.

3.- Zaintza-neurri diskretuak ezartzea eskariaren aurkezteak deskribatu dituen lekuetan edo jazarpena ager daitekeen lekuan, honako hauek barne hartzen dituzten behaketa-erregistroekin: Data/Lekua/Ordua/Gertaera/Berehalako larrialdi-neurria/Behatzailearen sinadura. Hala ere, erasoek ez badute



etenik, ustezko jazarpenari buruzko informazioa zabaldu bada edo justifikatutako beste arrazoi batzuk badaude, neurri zorrotzagoak hartuko dira egoera bideratzeko.

4.- Honako hauek kontuan hartzea: ikasle-talde batek (murriztua eta beti prestakuntza espezifiko duena) ustezko biktimari une oro laguntzeko aukera eta edozein gorabeheraren berri ematea BAT taldeari. Funtzionatuko duen segurtasuna izan behar dugu martxan jartzeko.

5.- Ikasleen lekua aldatzea ikasgelan, jantokian edo egoera zehatzari erantzuten dioten beste batzuetan.

6.- Beste batzuk

Une horretatik aurrera, informazio-bilketa nabarmendu gabe eta sistematikoki egingo da, eta inplikatur dauden ikasleen adina, heldutasuna edo gogo-aldarteak kontuan hartuta, haientzat kaltegarri izan daitezkeen edo kasuaren ebazpena zaildu dezaketen metodoak erabiltzea saihestuko da.

Aurreko guztia konfidentzialtasun-printzipioaren arabera landuko da. Ikastetxeko zuzendaritzak ez die inoiz ikasleei buruzko informaziorik emango familiakoak ez direnei.

.....(e)n,(e)ko(a)ren 20..... (e)(a)n

Zuzendaria

Eskaria egiten duena

Sin.:

Sin.:

Eskaria egiten duen pertsonak ez ditu zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

Aipatutako lege-erreferentziaz gain, sinatzeko unean, garrantzitsua da eskatzaileari gogoraraztea gomendagarria dela kasua ikastetxearen eta familiaren artean bideratzea, eta ingurune horretatik kanpo zabaltzeak EZ duela arazoa konpontzeko; aitzitik, beste kasu batzuetako esperientzian oinarrituta, egoera gehiago zaildu dezake.



I. ERANSKINA

IKASTETXEKO BILERAREN AKTA

OHAR OROKORRAK

Esku-hartzea eskatzen denetik 5 eskola-eguneko epearen barruan, ikastetxeko zuzendaritzak bilerarako deia egingo dio BAT taldeari, inplikaturako irakasleei eta kasuari buruzko informazio esanguratsua eman dezaketen ikastetxeko bestelako langileei. Hortik aurrera, I. eranskina egingo da.

Protokoloaren beste funtsezko mugarrietako bat I. eranskina ekarri duen irakasle-taldearen bilera da:

- Erantzukizun partekatuko unea da, elkarrekin lantzekoa, diagnostikoa egitekoa, denboran hurbileko behaketetan eta ikasle horiek inplikaturako zeuden aurreko egoerak gogoraraztean oinarrituta, gertatutakoari eta jazarpenarekiko loturari buruzko begirada globala eta analitikoa aldi berean ezartzea ahalbidetzekoa.
- Hartzen diren erabakiak orain arte jasotako datu eta ebidentzietan oinarrituko dira, horretarako berriaz erabakitako tresna eta prozeduren bidez (Bizikasik egoera bakoitzera egokitzen diren hainbat tresna eskaintzen ditu). Egozketetan, aurreiritzietan, usteetan eta iritzi hutsetan oinarritutako erabakiak baztertu behar dira.

Kasuari lotutako ezaugarri bereziek hala eskatuz gero, zuzendariak erabakiko du, BAT taldearen balorazioak oinarri hartuta, Berritzeguneko aholkularien edo erreferentziako ikuskariaren bestelako esku-hartzeren bat eskatu behar den, horietako bakoitzaren jardura-eremuaren arabera.

Bilera zehatz-mehatz prestatu behar dugu, inplikaturako hezkuntza-taldeko kide bakoitzaren ekarpena, eztabaida eta erabakiak hartzeko modua antola daitezten. Eskatzaileak 0 eranskinean kontatutako gertakarien azterketatik abiatuko da.

Lehentasunezko jarduerak epe horretan

Aldi horretan funtsezkoa da bi zentzutan jardutea:

- a) Biktima izan daitekeenaren babesa ziurtatzea eta eraso gehiago eragozteko, horiek gertatzen jarraitzen badute.
- b) Ikerketak eta behaketak egiten hastea. Ahalik eta zehatzia eta kontu handienarekin jardungo dugu, ustezko jazarpena hedatzea edota kontrolik gabeko egoerak eragitea saihestu ahal izateko.

- ✓ Oro har ezin da talde-ikasgela osoarekin zuzenean esku hartu, ezta ikasle talde batzuekin ere, ikasle bakoitzarekin modu espezifikoan baizik.
- ✓ Hobe da beti prozedura ez hain inbaditzaileak erabiltzea inbaditzaileenak baino, ohikoenak ezohikoenak baino. Talde-ikasgelan galdera-sorta bat pasatu nahi izanez gero, beti komeni da tutoreak egitea ikasketa-buruaren ordean, adibidez. Hainbat ikaslerekin elkarrizketatu behar izanez gero, hobe da beti banakako tutoretza-orduetan egitea, beste eskola-ordu batzuetan ikasgelatik ateratzea baino.
- ✓ Jarduketetan, inoiz ez zaie daturik emango ustezko jazarpen-portaerak dituzten ikasleei, bestela, kasuari buruzko informazioa eman dutenak identifika ditzakete. Ikerketen emaitzak gure jarrera behatzaile eta koordinatuari egotzi behar zaizkio beti. Guztiontzako zentro seguru eta abegikorra nahi dugu.

BAT taldea: jardueren zuzendaritza eta koordinazioa

BAT taldeak, Berritzeguneko aholkularitzarekin harremanetan, informazioa biltzeko erabiliko diren prozedurei eta tresna egokienei buruzko erabakiak hartuko ditu (ikus Bizikasi). Era berean, zeregin zehatzak esleituko dizkie (behaketak, tresnen erabilera, zaintza, etab.) inplikaturako hezkuntza-taldeko kideei (tutorea, irakasle-taldeko beste kide batzuk eta jakinarazitako ustezko eskola-jazarpenarekin zerikusia duten egoeretan egon diren beste irakasle batzuk), beharrezkotzat jotzen bada, eta horiek dokumentu bidez jasoko dituzte.



Datuak eta ebidentziak biltzea

Hezkuntza-taldeak jasotzen dituen datuek eta ebidentziek bi jatorri izango dituzte. Lehenengoa esku hartzeko eskaeratik dator, eta bigarrena *motu proprio* egindako behaketetatik, behin ikerketa-aldia hasita.

Garrantzitsua da datuak jasotzeko era desberdinetako estrategiak erabiltzea: behaketa zuzena, egoerarekin lotura duten ikasleekin elkarrizketak (kasu honetan, oso garrantzitsua da kontuan hartzea elkarrizketatutako ikasleen adina, elkarrizketak egiten dituzten pertsonak eta erabilitako prozedurak), autotxostenak, heterotxostenak eta abar.

Gogoratu irakasleak eta ikastetxeko zuzendaritza ikasleekin bil daitezkeela protokoloa abian jartzearen ondoriozko jardueretarako. Protokoloa egiten den bitartean familiaren batek aipatutako bilerak egiteko aukera ukatzen badu, beharrezkoa da egoera baloratzea Hezkuntza Ikuskaritzarekin harremanetan jarrita.

Ustez jokabide erasotzaileak dituzten ikasleen familiarekin harremanetan jartzea

Ustezko portaera jazarleak dituzten ikasleen familiarekiko harremanari eutsiko zaio, baldin eta, ikerketa-prozesuaren ondoren, aztertzen ari diren portaeren izaerari buruzko zantzu nahikoak badaude, eta zantzu horiek balio badute jazarpen-portaera bat izan dela egiaztatzeko, eta hori A txostena egitean gertatzen da. Hala ere, erasoak eten ez badira edo bestelako arrazoi justifikatuak badaude, zuzendaritza Ikasle horien familiarekin urgentziaz jarriko da harremanetan, egoerari aurre egiteko, egoera bideratzeko eta beste jazarpen-egoera batzuk eragozteko.

Era berean, familiari dei egingo zaio ustezko jazarpenari buruzko informazioa familiaren belarrietara iritsi bada (herrian zehar zabaldu bada, semeak edo alabak kontatu badio, etab.).

I. eranskinaren arabera jazarpenik ez badago, beharrezkoa al da esku hartzeko eskaera egin duten ikasleen familiarekin bilera egitea?

Esku hartzeko eskaria familiak egin badu, bilera egin eta egindako balorazioaren berri eman behar zaio.

Esku hartzeko eskaria ikastetxeko barne-iturri batetik badator, oro har, ez da beharrezkoa izango familiarekin bilera egitea. Hala ere, beharrezkoa izango da, familiari jazarpenaren protokoloa ireki dela jakinarazi bazaio edozein bidetatik.

1.- IKASTETXEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren inizialak	

2.- BILERARA BERTARATUAK

Izen-abizenak	Kargua*	Sinadura

* Adierazi nor diren BAT taldeko kideak

3.- EZTABAIDATUTAKO GERTAKARIAK, USTEZKO JAZARPENAREN GAINEKO BEHAKETEN INGURUAN

(Eztabaidatuko diren gaien nahitaezko konfidentziasuna bermatuko da, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla).



Atal honetan hezkuntza-taldeak egindako oharrak jasotzen dira. Berriro diogu oso garrantzitsua dela analisia orain arte Bizikasiren tresna eta prozedura espezifikoek bidez jasotako datuetan eta ebidentzietan oinarritzea.

4.- HARTUTAKO ERABAKIAK

(Berariaz adieraziko dira protokoloari buruz hartutako erabakiak, ustezko biktima babesteko neurriei buruzkoak, salatutako gertakarien ustezko eragileari zuzendutako kautela-neurriei buruzkoak, halakorik badago, eta garrantzitsutzat jotzen den beste edozein alderdiri buruz hartutakoak ere bai).

Protokoloa itxi?: segurtasun osoa badugu bakarrik

Ikerketak 0 eranskinetik I. eranskinera arte egiteko epea bost eskola-egunekoa da bakarrik, eta epe hori, oro har, laburra da. Hori dela eta, protokoloa ixtea erabakiko da, baldin eta jazarpenik ez egoteari buruzko segurtasun osoa badago. Segurtasun hori datu eta ebidentzia objektiboetan oinarrituta zehaztu beharko da.

Hala eta guztiz ere, erreferentziazko ikuskatzaileari kontsulta egin ondoren, berorrek uste badu A txostena egin arte irekitako protokoloarekin jarraitu behar dela, irizpide horri jarraituko zaio.

Babes-neurriak berrikustea

Ustez jazarpena jasaten duten ikasleak babesten jarraitzeko neurriak erabakitzea. Zehaztea eranskinen agertzen direnak, eta beste batzuk gehitu, hala erabaki bada).

Horrez gain:

4.1.- Erreferentziako ikuskariarekin kontsulta egin eta gero, honako hau erabaki da:

Protokoloarekin jarraitu A txostena egin arte*	
Protokoloarekin ez jarraitu, jazarpenik ez baitago	

* Jazarpen-zantzuak badaude edo horiei buruzko zalantzak badaude, kasua argitzeko behaketa- eta ikerketa-prozesuekin jarraituko da, hau da, ikertzen jarraituko da A txostena egin arte.

4.2.- Jazarpenik EZ dagoela ebatzi bada, erabaki hori hartzea ekarri duten datuak eta ebidentziak adieraziko dira.

4.2 AZPIPARTATUA JAZARPENIK EZ DAGOELA BALORATU DENEAN BAKARRIK BETEKO DA. KASU HORRETAN, A TXOSTENEAN EGITEN DEN BEZALA JUSTIFIKATU BEHARKO DA.

Berriz ere azpimarratu behar da 0 eranskinetik I. eranskinera bitarteko ikerketak egiteko denbora laburra dela, eta, beraz, jazarpenik ez dagoela erabat ziur dagoenean bakarrik itxiko dela protokoloa, betiere erreferentziazko ikuskatzaileari kontsulta egin ondoren.

A) LORTUTAKO INFORMAZIOA

Datuak eta ebidentziak biltzeko ikastetxeak erabili dituen prozedurak (elkarrizketak, behaketa-erregistroak, autotxostenak eta heterotxostenak, triangulazioak, familiekin egindako bilerak, etab.).

Erabilitako tresnak, prozedurak eta estrategiak zehaztu behar dira.

Adibidez:

"Honako jarduketa hauek dokumentatuta daude:

- *Tutoreak inplikaturako ikasleekin eta BAT taldeko arduradunak hiru ikasle ikuslerekin egindako elkarrizketak.*
- *Aisialdiko lau irakasleren, jantokiko bi begiraleren eta zerbitzuaren arduradunaren erregistro-orriak.*
- *Bizikasiren tresnak erabiltzea: "Nire bizitza eskolan" autotxostena + "Autonarrazioak".*



Ikastetxeak bildutako datuak eta ebidentziak, eskaria oinarri hartuta (zehatz eta modu objektiboan deskribatuko dira).

Frogatutako gertakariak

Atal honetan protokoloa ireki zenetik "frogatutako egitateak" jaso behar dira.

"Frogatutako egitateak" dira modu frogagarrian egiaztatu ahal izan diren gertaerak, bai bertsioak triangulatu, bai hirugarrenen testigantza jasota, bai eragileek egitateak onartu dutelako, eta abar. Garrantzitsua da gogoratzea "frogatutako egitateak" direla deskribatutako bitartekoekin objektiboki egiazta daitezkeen egitateak.

Nolanahi ere, jarduera bat ezin egiaztatzeak edo gertakari batzuk eskola-jazarpenaren tipologiarekin bat ez etortzeak ez du esan nahi ikastetxeak hezkuntza-izaerako neurriak hartu behar ez dituenik.

Plana idaztea

Datu eta ebidentzia horiek argi, zehatz, objektiboki eta berezita idatzi behar dira. Hau da, gertakari zehatz bakoitzeko ustezko erasotzailea nor den, biktima izan daitekeena eta gertaera bakoitza berresten duen frogaz zein den ezarrita. Berriz ere, orokortze edo deskribapen lausoak saihestu behar dira, baita balorazio subjektiboak edo balio-judizioak ere.

- 1. Adibidea (idazkera zehaztugabea da): *"Klasean normal ibili dira"*.
- 2. adibidea (idazketa egokia da): *"Ostiralean, hilaren 12an, ikastetxeko sarreran, ilara egiten ari ziren bitartean, ABC eta DEF ikasleek motxila kendu zioten, aurpegira bota zioten eta gutxienez bi ostikada eman zizkioten bakoitzak; hori XYZ lekukoek eta MNO begiraleak frogatu dute"*.

B) INFORMAZIOA AZTERTZEA

Ondorio garrantzitsuenak, bildutako ebidentziak oinarri hartuta.

Oro har, jazarpena dagoela baztertzeko, bi ikuspegi osatu behar dira, jazarpenaren 4 osagaiak aztertzen dituen, bai eta ikuspegi globala ere, kasuaren inguruabar orokorrenak kontuan hartzen dituen (inplikaturako ikasleen eskola-historia, inplikaturako pertsonentzat sortutako problematikak dituen ondorioak eta horrek denboran zehar izan duen bilakaera, etab.).

Datuak eta ebidentziak aztertuta, eskola-jazarpenik EZ dagoela argudiatu nahi da.

Datu objektiboetan oinarritutako argudioak funtsezkoak dira.

Apartatu honetan ondorio orokorrenak jasoko dira; izan ere, eskura dauden datu eta ebidentzia guztiak batu nahi dira jazarpenik ez dagoela ondorioztatzeko, ezaugarri definitzaileak kontuan hartuta.

Adibidez:

"Azttertutako gertaera puntuala izan zela uste dugu. LTK-k ASZ larriki iraindu zuen gorputz-hezkuntzako klasearen erdian eta bere ikaskide guztien aurrean, baina hainbat iturrik (gorputz-hezkuntzako irakasleak eta gertaerak ikusi zituzten sei ikaslek) ere egiaztatu dute ASZk klasearen lehen zatian behin eta berriz LTK probokatu zuela. Probokazioak irainak eta mespretxuak izan ziren, LTKren erantzun amorraturaino tonuz igotzen joan zirenak. LTK-k eta ASZ-k ez dute inoiz harreman zehatzik izan eta ez dago antzeko egoeren erregistrorik ikasturtean zehar; beraz, unean uneko egoera izan dela baloratzen dugu. Izan ere, gertatutakoa tutoreak bi ikasleekin aztertu ondoren, ikasle horiek deskribatutako jokabideak aitortu zituzten, elkarri eskatu zioten barkamena zuzendariaren aurrean eta erasoak ez errepikatzeko konpromisoa hartu zuten. Ikastetxeak deskribatutako jokabideak zuzenduko ditu 201/2008 Dekretuko jokabideak zuzentzeko prozedura irekiz "

C) JAZARPENAREN EZAUGARRIAK AZTERTZEA

Bizikasigunean jasota daude baldintza horiek zehatzago bereizteko adierazleak:
<https://www.dropbox.com/sh/nvnafhd8ztnctx0/AACdOjAdeXJeezGD12VJ7kGka?dl=0>



Analisi hori egiteko balio-irizpideak ere sakonki azaltzen ditu gidak.

- Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?

Ez erantzun "ez", "Ez dago ebidentziarik" bakarrik. Galderarekin lotutako azalpen esanguratsuak eman behar dira.

Adibidea (idazketa egokia): *"Erasoan boterearen desoreka antzematen da, LMR ATZ baino askoz indartsuagoa zenez, lurrera bota zuen eta hainbat aldiz jo zuen; hala ere, unean uneko gertakaritzat hartu behar dugu, LMRk, borroka izan ezik, ez baitu inoiz bere indar fisiko handiagoa erabili ATZrengan defentsa-gabezia sortzeko. Hala ere, LMRren portaera ez da onargarria, eta berarekin lan egin behar dela uste dugu, berriro gerta ez dadin."*

- Ba al dago mina eragiteko intentzionalitaterik?

Ez erantzun "ez", "Ez dago ebidentziarik" bakarrik. Galderarekin lotutako azalpen esanguratsuak eman behar dira.

- Ba al dago pertsonalizaziorik?

Ez erantzun "ez", "Ez dago ebidentziarik" bakarrik. Galderarekin lotutako azalpen esanguratsuak eman behar dira.

Adibidea (idazketa egokia): *"Gure ustez, AAT ez da oldarkorra modu pertsonalean gainerako ikaskideekin, ezta TILekin ere."*

ATK zailtasunak ditu duela urte batzuetatik hona besteekin harremanak izateko. Askotan garrasi egiten du, keinuak egiten ditu eta mehatxuzko tonuan hurbiltzen da, baina ez da bere kide jakin baten aurka zuzentzen, baizik eta guztiekin egiten du. Horrek ere gainerakoei gaitzespena eta erantzun oldarkorrak eragiten dizkie. Horrek guztiak asko zailtzen du elkarri zor dioten errespetua eta begirunea. Hala ere, gure ustez, ATK ez du TILekiko jarrera jazarlerik, ez dituelako erasoak pertsonalizatzen, eta ez dituelako erabiltzen berarengan defentsa-gabezia sortzeko."

- Ba al dago erreplikapenik?

Ez erantzun "ez", "Ez dago ebidentziarik" bakarrik. Galderarekin lotutako azalpen esanguratsuak eman behar dira.

- Orokorrean aztertuta, jazarpenaren lau ezaugarrietako bakoitza azertu denean ateratzen den ondorio bera ateratzen al da?

BA AL DAGO JAZARPENIK?	X batekin adierazi
EZ	

..... (e)n, 20.. (e)ko ren (e)an

Zuzendaria

Sin.:

OHARRAK: Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte.

201/2008 Dekretuan jasotzen den jokabideak zuzentzeko prozedura aplikatu aurretik, erreferentziako ikuskaria kontsultatuko da.



A TXOSTENA

II. ERANSKINA

OHAR OROKORRAK

A txostena egiteko epea

I. eranskina egin zenetik A txostenera arte, gehienez 15 eskola-egun daude, eta, oro har, epe hori nahikoa da datuak eta ebidentziak biltzeko eta ikastetxeak jazarpena egon den balioesteko. BAT Taldeak ez du aipatutako 15 egunak itxaroteko betebeharririk, baldin eta nahikoa zantzu bildu baditu jazarpenik egon den edo ez dagoen egiaztatzeko.

Justifikatutako arrazoiengatik epeak betetzeko zailtasunik badago, zuzendaria erreferentziako ikuskaritzarekin harremanetan jarriko da.

Berritzeguneari eta Ikuskaritzari lankidetzat eskatzea

Kasuari lotutako berezitasunek hala eskatzen badute, zuzendariak erabakiko du, BAT taldearen balorazioetan oinarrituta, beharrezkoa den ala ez Berritzeguneko aholkularitzak edo erreferentziako ikuskaritzak, bakoitzaren jarduera-eremuaren arabera, I. eranskinean deskribatutako esku-hartzearen beste mota bat eskatzea.

Ikastetxetik kanpo izandako jokabideak

Usteko jazarpen-jokabideak ikastetxetik kanpo gertatu arren, ohikoa da jokabide horiek eskola-jarduerarekin kausa-ondorio lotura izatea, 201/2008 Dekretuaren 33. artikuluan deskribatutako zentzuan. Harreman hori egiaztatu ondoren, edo artikulua honetan adierazitako beste egoeraren batean oinarrituta, ikastetxeko zuzendaritzak, Hezkuntza Ikuskaritzarekin harremanetan jarrita, jazarpen-protokoloa irekitzeari buruzko erabakia hartuko du.

A txostena Hezkuntza Ikuskaritzari bidaltzea

Jatorrizkoa paperean bidaliko da, sinatuta eta zigilatuta.

1. IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2. BILDUTAKO HASIERAKO INFORMAZIOA¹

- **Esku-hartzeko eskariaren jatorria:**

(Tutorea, beste irakasle bat, ikasleak, familia, Berritzegunea, Hezkuntzako Ikuskaritza, beste batzuk)

Galderak lehenik eta behin eskaria nork egin duen aipatzen du; hau da, familiak jakinarazi badio ikastetxeari, nahiz eta ikastetxeak jarraian Ikuskaritzari jakinarazi, familia izango da jatorria.

- **Esku-hartzeko eskariaren data:**(0 eranskinean agertzen den data da)

¹Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da izapideetan eta ikerketetan, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.



- **Salatutako gertakarien laburpena:**

0 eranskinaren edukia erreferentziatzat hartu eta beste batzuk gehitu, informazio osagarria eman bada.

- **Inplikaturako ikasleen identifikazio datuak**

a) Ustezko biktima:

	Ikaslea.
Inizialak (izen-abizenak)	
Ikaslearen identifikazio-kodea	
Sexua	
Adina	
Maila eta taldea	

b) Salatutako jokabidearen ustezko eragileak

	Ikasleak		
Inizialak (izen-abizenak)			
Ikaslearen identifikazio-kodea			
Sexua			
Adina			
Maila eta taldea			

- **Ustezko jazarpena gertatu den lekua**

Zehaztu: patioa, jantokia, korridoreak, komunak,...

- **Lekukoak, baleude**

--

INFORMAZIO OSAGARRIA

	X batekin adierazi
Badago mediku-txostena	
Ikastetxeak ba al dauka salaketaren kopiarik?	
Salaketa jarri da Polizian, epaitegietan edo Fiskaltzan	
Ikastetxeak ba al dauka salaketaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote	
Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

3. IKASTETXEAK LORTUTAKO INFORMAZIOA²

[A txostena prestatzea](#)

BAT Taldeak protokoloaren hasieratik aurkeztutako dokumentazio guztia antolatu behar du inplikaturako hezkuntza-taldeko kide bakoitzeko. Kasua baloratzeko beharrezkoa bada, bilera berezi bat deituko da horretarako.

² Ustez inplikaturatuta dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.



Analisiaren ezaugarriak

Taldeak portaera jakin batzuei buruzko azterketa bat egingo du; hona hemen portaerok:

- Eskaria aurkeztu duenak azaldutakoak.
- Esku hartzeko eskaritik behatu dituenak.
- Esku hartzeko eskaeraren aurreko beste batzuk, aztertutako portaeren testuinguru globala kokatzen laguntzen dutenak, jazarpenarekin zerikusia izan dezaketen aurreko egoerak gogora ekarriz, bai ustezko jazarpen-portaerak dituzten ikasleengan, bai jazarpena jasaten duten ikasleengan.

Azterketa hori jazarpenaren ezaugarrien arabera egingo da (ikusi *Gida*), betiere eskura dauden datu eta ebidentzietan oinarrituta, eta inoiz ez iritzi, sinesmen, aurreiritzi edo suposizio hutsetan oinarrituta.

Datuak eta ebidentziak biltzeko ikastetxeak erabili dituen prozedurak (elkarrizketak, behaketa-erregistroak, autotxostenak eta heterotxostenak, soziogramak, triangulazioak, familiekin egindako bilerak, etab.).

Erabilitako tresnak, prozedurak eta estrategiak zehaztu behar dira.

Adibidez:

"Honako jarduketa hauek dokumentatuta daude:

- *Tutoreak inplikaturako ikasleekin eta BAT taldeko arduradunak hiru ikasle ikuslerekin egindako elkarrizketak.*
- *Aisialdiko lau irakasleren, jantokiko bi begiraleren eta zerbitzuaren arduradunaren erregistro-orriak.*
- *Bizikasiren tresnak erabiltzea: "Nire bizitza eskolan" autotxostena + "Autonarrazioak".*

Ikastetxeak bildutako **datuak eta ebidentziak**, esku-hartzeko eskaria oinarri hartuta (zehatz eta modu objektiboan deskribatuko dira).

Frogatutako gertakariak

Atal honetan protokoloa ireki zenetik "frogatutako egitateak" jaso behar dira.

"Frogatutako egitateak" dira modu frogagarrian egiaztatu ahal izan diren gertaerak, bai bertsioak triangulaturak, bai hirugarrenen testigantza jasota, bai eragileek egitateak onartu dutelako, eta abar. Garrantzitsua da gogoratzea "frogatutako egitateak" direla deskribatutako bitartekoekin objektiboki egiazta daitezkeen egitateak.

Nolanahi ere, jarduera bat ezin egiaztatzeak edo gertakari batzuk eskola-jazarpenaren tipologiarekin bat ez etortzeak ez du esan nahi ikastetxeak hezkuntza-izaerako neurriak hartu behar ez dituenik.

Plana idaztea

Datu eta ebidentzia horiek argi, zehatz, objektiboki eta bereizita idatzi behar dira. Hau da, gertakari zehatz bakoitzaren arabera, erasotzaile-portaera duten ikasleak, erasotua eta gertaera bakoitza berresten duen proba zein diren ezarrita. Berriz ere, orokortze edo deskribapen lausoak saihestu behar dira, baita balorazio subjektiboak eta balio-judizioak ere.

- 1. adibidea (idazkera zehaztugabea): *"Klasean normal ibili dira".*
- 2. adibidea (idazketa egokia): *"RS ikaslearen familiak ostiralean deitu zion zuzendariari, jakinarazteko RMk, ustezko jarrera jazarzaileekin, iletik tira egin ziola eta aurreko egunean jo zuela. Gelako tutorearen eta Lehen Hezkuntzako koordinatzailearen jarduerak izan dira ikasgelako beste ikasle batzuekin –PS, TZ, AN eta RR– gertatutakoari buruz izandako elkarrizketen datuak jasotzea, bai eta eskolako jolastokia zaintzen zuen irakaslearenak ere. Bertsio guztiak bat datoz RSk deskribatutako bi erasoetako bat bera ere ez zela gertatu esatean"*



4. INFORMAZIOA AZTERTZEA

Ondorio garrantzitsuenak, bildutako ebidentziak oinarri hartuta.

Oro har, jazarpena egon den jakiteko, bi ikuspegi osatu behar dira, jazarpenaren 4 osagaiak aztertzen dituen, bai eta ikuspegi globala ere, kasuaren inguruabar orokorrenak kontuan hartzen dituen (inplikaturako ikasleen eskola-historia, inplikaturako pertsonentzat sortutako problematikak dituen ondorioak eta denboran izandako bilakaera, etab.).

Datuak eta ebidentziak aztertuta, eskola-jazarpena dagoen ala ez argudiatu nahi da.

Datu objektiboetan oinarritutako argudioak funtsezkoak dira.

Apartatu honetan, ondorio orokorrenak jasoko dira; izan ere, eskura dauden datu eta ebidentzia guztiak batu nahi dira jazarpenik dagoen ala ez ondorioztatzeko, haren ezaugarri definitzaileak kontuan hartuta.

Adibidez:

"Aztertutako gertaera puntuala izan zela uste dugu. LTK-k ASZ larriki iraindu zuen gorputz-hezkuntzako klasearen erdian eta bere ikaskide guztien aurrean, baina hainbat iturrik (gorputz-hezkuntzako irakasleak eta gertaerak ikusi zituzten sei ikaslek) ere egiaztatu dute ASZk klasearen lehen zatian behin eta berriz LTK probokatu zuela. Probokazioak irainak eta mespretxuak izan ziren, LTKren erantzun amorraturaino tonuz igotzen joan zirenak. LTK-k eta ASZ-k ez dute inoiz harreman zehatzik izan eta ez dago antzeko egoeren erregistrorik ikasturtean zehar; beraz, unean uneko egoera izan dela baloratzen dugu. Izan ere, gertatutakoa tutoreak bi ikasleekin aztertu ondoren, ikasle horiek deskribatutako jokabideak aitortu zituzten, elkarri eskatu zioten barkamena zuzendariaren aurrean eta erasoak ez errepikatze konpromisoa hartu zuten. Ikastetxeak deskribatutako jokabideak zuzenduko ditu 201/2008 Dekretuko jokabideak zuzentzeko prozedura irekiz".

5. JAZARPENA DAGOEN ALA EZ BALIOESTEA

Baloratze kasurik errazenak

Ikastetxeko zuzendaritzak eta BAT taldeak eskola-jazarpenik dagoen baloratu behar dute, jazarpenaren lau ezaugarriak kontuan hartuta.

Bizikasigunean jasota daude baldintza horiek zehatzago bereizteko adierazleak: <https://www.dropbox.com/sh/ekf9ee470e43fn8/AACKsVC1Joji8631DFmRaCwla?dl=0>

Analisi hori egiteko balio-irizpideak ere sakonki azaltzen ditu gidak.

Behaldekoko galderak ezin dira bakarrik BAlezko edo EZezko batekin erantzun. Erantzuna arrazoitu behar da. Adibide batzuk agertzen dira behealdean.

Kasurik konplexuenak

Kasu horietarako, oso lagungarria izan daiteke *Gidak* ematen dituen irizpideak. Horietako batzuek jazarpenaren lau ezaugarrietan sakontzen dute, eta beste batzuek irizpide orokor eta globalak ematen dituzte. Kasu konplexuagoetan, balorazioa bi ikuspegietatik abiatuta egingo da beti. Edonola ere, Berrizegunearen eta Ikuskaritzaren laguntza oso baliagarria izan daiteke.

Gogoan izan, jazarpenik egon den ikusteko denbora gehiago behar izanez gero, zuzendaritza erreferentziako ikuskaritzarekin harremanetan jarriko dela.

Egoera espezifikoak

Protokoloak denboran zehar gertatutako egoeren konplexutasuna jasoko du: jazarpenik egon bada, hala izan dela jaso behar da, baina baita gauzatu den hezkuntzako esku-hartzea ere (jokabideak aldatzeko eta eragindako kaltea aitortzeko konpromisoak), egoera bideratzea lortu baitu.

[Portaera bat eskola-jazarpenaren arlokoa ez bada ere, 4 galderetako bati erantzun positiboa eman diezaioke](#)



Ondorioz, ondorengo galderen erantzunek ez dute zertan negatiboak izan jazarpena egon dela baloratzen ez den kasu guztietan.

- Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?

"Bai", "Ez", "Ez dago ebidentziarik" bakarrik ez erantzutea. 4. apartatuko ondorioekin lotutako azalpen esanguratsuak eman behar dira.

Adibidea (idazketa egokia): *"Nahiz eta batzuetan MJSk modu oldarkorren erantzuten duen AGS eta LTPren etengabeko iseken aurrean, eta batzuetan eraso ere egin dien, eraso errektibo horiek ez dute eragozten isekak jarraitzea. Ondorioz, boterearen desoreka eta babesgabetasuna daude oraindik".*

Analisi hori egiteko balio-irizpideak ere sakonki azaltzen ditu *Gidak*.

- Ba al dago mina eragiteko intenzionalitaterik?

"Bai", "Ez", "Ez dago ebidentziarik" bakarrik ez erantzutea. 4. apartatuko ondorioekin lotutako azalpen esanguratsuak eman behar dira.

Adibidea (idazkera zehaztugabea): "Ez dago intenzionalitaterik"

Analisi hori egiteko balio-irizpideak ere sakonki azaltzen ditu *Gidak*.

- Ba al dago pertsonalizaziorik?

"Bai", "Ez", "Ez dago ebidentziarik" bakarrik ez erantzutea. 4. apartatuko ondorioekin lotutako azalpen esanguratsuak eman behar dira.

Adibidea (idazketa egokia): *"Ez dugu ikusten AZMren oldarkortasuna STTri bereziki zuzenduta dagoenik. Aitzitik, objektuetara, ikaskideengana eta heldu hezitzaileengana zuzentzen da modu zehaztugabea. Bi aldiz harrapatu du STT, baina baita bere taldeko beste ikasle asko ere. Ondorioz, ez dago AGMk STT ikaslearengana berariaz bideratutako pertsonalizaziorik, oldarkortasunik".*

Analisi hori egiteko balio-irizpideak ere sakonki azaltzen ditu *Gidak*.

- Ba al dago errepikapenik?

"Bai", "Ez", "Ez dago ebidentziarik" bakarrik ez erantzutea. 4. apartatuko ondorioekin lotutako azalpen esanguratsuak eman behar dira.

Adibidea (idazketa egokia): *"Nahiz eta CBRk Instagramen ATP emakumezko ikasle erdi biluzia agertzen zen argazki bat bakarrik jarri zuen eta ikastetxearen esku-hartzeak hurrengo goizean ezabatzea lortu zuen, agerikoa da ATPk jasan duen kaltea eta babesgabetasuna, eta argazkia etorkizunean berriro sarean agertzeko aukera. Horregatik, argazkia behin bakarrik eskegi den arren, ziberjazarpena badagoela agerikoa da."*

Analisi hori egiteko balio-irizpideak ere sakonki azaltzen ditu *Gidak*.

- Orokorrean aztertuta, esan al daiteke badagoela ustezko biktimari nahita mina eragiteko jokabidea, jokabide hori errepikatu egiten dela eta biktima ez dela gauza bere burua defendatzeko?

BADAGO JAZARPENA	X batekin adierazi
BAI	
EZ	

Uste izanez gero JAZARPEN kasua dela, haren ezaugarriak adierazi beharko dira. Adierazi beheko taulan kasuaren berezitasunak.



Adibidez: Kasu batean gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa (1), hitzezko erasoak (2) eta ziberjazarpena (7) badago, taulan 1, 2 eta 7 apartatuak markatuko dira

(Bete jazarpena badagoela zehaztu bada bakarrik)

	Ez	Bai	Puntuala	Errepikatua
1. Gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa – Norbait aintzat ez hartzea (pasiboa). – Ez uztea parte hartzen (aktiboa).				
2.– Hitzezko erasoak – Norbait iraintzea (zuzena). – Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa) – Goitizena jartzea (mistoa).				
3. Zeharkako eraso fisikoak – Norbaiti gauzak izkutatzea. – Norbaiti gauzak puskatzea. – Norbaiti gauzak lapurtzea.				
4. Eraso fisiko zuzenak – Norbait jotzea.				
5. Larderia/xantaia/mehatxua – Norbait mehatxatzea beldurrarazteko. – Gauzak egitera behartzea. – Armekin mehatxatzea.				
6. Sexu-jazarpena edo -abusua eta/edo jazarpen sexista – Sexualki jazartzea edo beldurtzea. – Sexu- gehiegikeria gauzatzea. Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
7. Ziberjazarpena – Mehatxuak, irainak edo beste pertsonari barre egitea mugikorrekiko mezuen, e-mailen, sare sozialen, whatsappen eta abarren bidez. – Mugikorrarekin grabatzea egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen duten egoeretan (adib.: sexing), ikaskideen artean edo Interneten zabaltzeko.				
8. LGTBIQ+fobiako ekintzak - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea LGTBI pertsona izateagatik. - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak. - Larderia/xantaia/mehatxuak LGTBI pertsona izateagatik				
9. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei erasoak, dituzten ezaugarriak direla-eta - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea. - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak. - Larderia/xantaia/mehatxuak				
10. Eraso arrazistak - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea. - Hitzezko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak. - Larderia/xantaia/mehatxuak				



6. HEZKUNTZA-TRATAMENDUA

- Jazarpenik EZ dagoenerako hezkuntza-tratamendua

(Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den)

A txostenaren arabera, EZ bada jazarpenik egon, BAT taldeak proposatuko du kasuari eman behar zaion hezkuntza-erantzuna, betiere bizikidetzara positiboa bultzatzera bideratuta. Horretarako, Berritzegunearen laguntza izango du.

Hezkuntza-alderdian, plangintza, ordu-dedikazioa, edukiak eta abar aipatuko dira, besteak beste: Tutoretza kolektiboa, banakako tutoretza, gatazkak indarkeriarik gabeko metodoen bidez konpontzea, gelako arauak lantzea, etab.

Erreferentziako ikuskaritzarekin harremanetan, zuzendariak erabakiko du jokabideak zuzentzeko prozedura ireki ala ez (201/2018 Dekretua), kontuan hartuta prozeduraren ondoriozko preskripzioak eta haren aplikazioak kasu guztietan duen asmo hezitzailea. Zeregin horretan, erreferentziako ikuskariaren aholkularitza izango du.

- Jazarpena baldin BADAGO: deskribatu biktimaren babesa bermatzeko ezarritako neurriak eta inplikaturik dauden ikasleekin hartutako neurriak (Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den)

Ikastetxeak jazarpen-portaerak izan dituzten ikasleekin abian jarriko dituen neurrien helburua beti izango da portaera horiek berriz gerta ez daitezen eta eragindako kalteak konpontzeko laguntza ematea. Horrek ikaskuntza berriak ekarriko ditu, ikaskideekin harremanak izateko modu berriak abian jartzeko beharrezkoak direnak. Ezin dugu ahaztu ikastetxeko ikasleak direla, bai jazarpena jasan dutenak, bai jazarpen-portaerak izan dituztenak.

Apartatu honetan, I. eranskineko 4. puntuan (hartutako erabakiak) adierazitakoak jaso daitezke, eta beste batzuk gehitu, beharrezkotzat jotzen bada.

Erreferentziako ikuskaritzarekin harremanetan, zuzendariak erabakiko du jokabideak zuzentzeko prozedura ireki ala ez (201/2018 Dekretua), kontuan hartuta prozeduraren ondoriozko preskripzioak eta haren aplikazioak kasu guztietan duen asmo hezitzailea. Zeregin horretan, erreferentziako ikuskariaren aholkularitza izango du.

7. Familiei jakinaraztea.

(datak, prozedurak, edukia, akordioak, etab.)

Jazarpena BAI egon dela baloratu bada, portaera erasotzaileak izan dituzten ikasleen familiei banan-banan deitu beharko zaie, hartutako neurrien berri emateko eta egin dituzten ekintzek izan ditzaketen ondorioen berri emateko. Bilerak horiek aurreratu edo atzeratu ahal izango dira baldin eta justifikatutako arrazoiak badaude, eta betiere erreferentziako ikuskaritza kontsultatu eta gero. Familiekin egingo diren bilerak banan-banan egingo dira haietako bakoitzarekin.

Jazarpena jasan duten ikasleen familiekin bezala, beharrezkoa da jazarpen-portaerak izan dituzten ikasleen familiekin ere lankidetzan aritzea. Kasu horretan ere, enpatia afektiboa, kognitiboa eta keinuzkoa, lana eta erantzukizuna partekatua, komunikazio positiboa eta indarkeriarik gabea, erruduntasunik eza eta laguntza jasotzeko prestasuna funtsezkoak dira familiarekin elkarrenganako konfiantza sortzeko, eta baldintzak dira adingabeak jazarpen-portaerak eteteko eta simetrian eta tratu onean oinarritutako beste jokabide batzuk ikasteko orduan elkarrekin lan egiteko.



Komeni da une oro kontuan izatea jazarpen-jokabideez/portaerez hitz egiten dugula, eta ez ikasleaz pertsona gisa: zaindu behar dugu gure hiztegiak ez duela pertsona erruduntzat jotzen, baizik eta portaera eta jokabideak identifikatzen laguntzen duela.

Bilera guztietako aktak egingo dira eta bertan adieraziko dira data, ordua, bileraren helburua, parte hartu dutenak, ondorioak eta proposamenak, ereduaren arabera (Akta eredu).

Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentziasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko ahozko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturako gainerako ikasleei buruz.

.....(e)n,(e)ko(a)ren (e)(a)n

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:



B TXOSTENA

III. ERANSKINA

OHAR OROKORRAK

Ikasleen eta talde-gelen egoeraren jarraipena egitea. Jarduera-plana. Egindako kaltea konpontzea

A txostenaren arabera, jazarpena egon bada, beste denbora-tarte bat irekiko da non BAT taldeak esku-hartze berriak abiaraziko dituen honako helburu nagusi hauekin: jazarpen-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egitea, jarduketa-plan bat lantzea inplikaturako ikasleentzat edota taldea-gelarentzat, hala badagokio, eta familiekin komunikazioa mantentzea.

Une honetan oinarriak jarri behar dira kaltetutako harremanak leheneratzeko eta horretarako beharrezkoak diren konponketa-prozesuei ekiteko.

B txostenaren ezaugarriak

B txostena lantzeko, beharrezkoa da jarduera-plan bat egin eta abian jartzea ikasle guztiekin eta inplikaturako ikasgelarekin edo ikasgelekin batera. Ez dago denbora-mugarik jarduketa-plan horretarako.

Jarduera-planaren jarraipen-dokumentu bat emango da, BAT taldeei zeregin horretan laguntzeko.

Eskola-jazarpeneko egoera batzuetan, nahikoa datu eta ebidentzia daude jazarpen-kasua ikastetxeetako hezkuntza-esku-hartzeen bidez bideratu dela adierazten dutenak. Kasu arinak ohi dira. Kasu horietan, errazagoa da bideratzea.

Hala ere, beste egoera batzuetan ez dago gertatzen ari denari buruzko segurtasunik, edo jazarpen-portaerak jarraitu egiten dute, nahiz eta hezkuntza-arloan esku hartu. Kasu horietan, protokoloan adierazitako neurri guztiei eutsiko zaie ikasturtea amaitu arte edo hurrengo ikasturtean kasuari berriz ekin.

Ondorioz, ez dago alde zuzen jakiterik jazarpen-kasu bat bideratuzat noiz jo behar den, edo itxitakoan kasu hori berriz irekitzea egokiagoa ote den, edo beste bat irekitzea, erasoak berriz gertatzen badira. Gai horiek erreferentziako ikuskatzailearekin kontsultatuko dira

Berritzeguneren aholkularitza

Berritzeguneari aholkularitza emango dio BAT taldeari jazarpenaren biktima izan den ikaslearekin, jazarpen-portaerak dituzten edo izan dituztenekin, jazarpen-kasuen lekuko izan direnekin eta familiekin nola jardun behar duen azaltzeko. Kasuaren berezitasunak kontuan hartuta hala komeni bada, talde-gelaren bizikidetzaren berrezartzera bideratutako esku-hartze espezifikoak egingo du hezkuntza-taldeak.

Familiekin harremanetan jartzeko irizpide orokorrak.

Gogorazi nahi dugu familiekiko harremana –bai jazarpena jasan duten ikasleena, bai jazarpena jasan dutenena– enpatia oinarri duen lankidetzan oinarritzen dela. Beharrezkoa da haiekin etengabeko komunikazioa izatea hezkuntzako esku-hartzeak irauten duen bitartean.

Jazarpena jasan duten ikasleen familiarekin garrantzitsua da autoinkulpaziorik eza lantzea, ikaslea eta haren familia ez baitira gertatzen denaren errudunak. Garrantzitsua izan daiteke, halaber, maiz agertzen diren beste alderdi batzuk lantzea, hala nola semea edo alaba biktimizatzeagatik haserrea edo amorrua, jazarpena egin duenarentzat zigor eredugarriak eskatzea, atsekabea eta samina etengabeko jazarpen-egoerak jarraitzen duenean eta ikastetxeko esku-hartzeek ez dutenean erabat galarazten, ahalegin handia egin arren, larritasunak edo presak eragindako neurri gabeko erreakzioak, kaltetutako autoestimua lantzeko kanpoko laguntza onartzeko zailtasunak, ikastetxerik aldatzeko eskaera, etab.

Jazarpen-portaerak dituzten ikasleen kasuan, garrantzitsua da alderdi hauek lantzea, alegia: eraso berriak saihesteko beharra, gertatu direnak ez justifikatzearen garrantzia, partekatutako hezkuntza-neurri zuzentzaileak aplikatzeko konpromisoa, ikaslea beste batzuk jartzera eraman duten arrazoiak sakontzea, jokabide eta jarrera berriak lantzeko kanpoko laguntza onartzeko beharra, etab.



Irizpide espezifikokoak

- Saihestea tonu orokor oldarkorrek eta erruduntasuna harreman-forma gisa.
- Jarrera harkorra eta enpatikoa izatea.
- Portaeren arrazoiei buruz galdetzea eta interesatzea, baina bilerak galdeketa ez bihurtzea.
- Elkarlanerako eta baterako lanerako dei iraunkorrak egitea, jarduteko modurik onena den aldetik.
- Keinuak eta jarrerak zaintzea. Familian konfiantza sortu behar da.
- Familiekin egingo diren bilerak banan-banan egingo dira haietako bakoitzarekin.
- Bilera guztietako aktak egingo dira eta bertan adieraziko dira, data, ordua, bileraren helburua, parte hartu dutenak, ondorioak eta proposamenak, ereduaren arabera (Akta eredu).
- Aurkeztutako datuen zein pertsonen ematen dituzten datuen konfidentziasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko ahozko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturako gainerako ikasleei buruz.

Edozein kasutan, bileran zailtasun larriak sortuz gero, atzeratu egin beharko da, denok denbora bat hartu eta geroago berriz deitu.

Epeak

Ikastetxeko zuzendaritzak 22 eskola-egun izango ditu A txostena egin zenetik B txostena egiteko eta Ikuskaritzari eta Berritzeguneko erreferentziako aholkularitzari bidaltzeko, haren zuzendaritzaren bidez.

1. IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Biktimaren inizialak	

2. "A TXOSTENA" HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA IGORRI ONDOREN ESKURATU DEN INFORMAZIO OSAGARRIA ETA DATU ESANGURATSUAK³

Bileretatik, elkarrizketetatik, gelan ohartemandakotik, beste toki batzuetatik edota beste iturri batzuetatik bildutako informazio berriaren deskripzioa.

3. JARDUERA-PLANA

Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

³ Inplikaturako ikasleak inizialen bidez identifikatuko dira.

**Hezkuntza-jarduerak**

- Biktimarekin

- Jokabide jazarlea duten ikasleekin

- Ikasle ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin

Beste jarduketa batzuk

- Familiekin

- Irakasleekin

Ziberjazarpen kasuetarako jarduketa espezifikoak

[Kontsultatu: "Ciberbullyingaren aurrean ikastetxeetan jarduteko orientabideak"](#)

**4. BILERAK FAMILIEKIN EDO LEGEZKO TUTOREEKIN**

Datak, bertaratuak, bileraren helburuak eta ondorioak eta bileretan hartutako erabakiak.

Sarreran jasotako irizpideak jarraitu.

5. JAZARPEN EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarduketa-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak.

Jarduketa-planaren eta egindako esku-hartzeen ebaluazioa.

Hezkuntzako Ikuskaritzari informazioa emateko prozedura eta maiztasuna.

.....(e)n,(e)ko(a)ren (e)(a)n

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.: